



BAINO LEHEN ... GRAN TORINO



SINOPSISIA: Walt Kowalski, Koreako gerra-beteranoa da, langile erretiratua eta alarguna. Kowalskiren eguneroko zeregina bere altxor preziatuenaz arduratzea da: 1972ko Gran Torino kotxea. Oso gizon zorrotza da eta erraztasunez haserretzen da; gainera, ez du bere inguruan gertatzen diren aldaketak onartzeko erraztasunik. Ez ditu batere ondo ikusten bere auzora heldu diren Asiako etorkinak, baina, egoerak bultzatuta, bere ideia finkoak aldatuko ditu.

- Trailerra ikusi nahi duzu?

<https://www.youtube.com/watch?v=8vrDaG-owEc>

"*Million Dollar Baby*"-n boxearekin bezala, "*Gran Torino*"-n Clint Eastwood-ek arrazismoa eta aurreiritziak erabiltzen ditu metafora gisa eta Thao eta bere arreba Sue-ren babesa salbaziorako bide gisa. Eastwoodek Walt Kowalski zahar eta zaputza interpretatzen du. Thao gazte etorkinarengan, dirudienez, seme-alabekin eta bilobekin garatzen jakin ez zuen **afektu-eta hezkuntza- zereginaren** plazera aurkitzen du. Era berean, itxuraz insolidarioa den Walten bitartez, Eastwoodek justizia erakunde publikoetatik haratago doala eztabaidatzen du. Justizian, herritarrak izan behar duela protagonismoa, baina protagonismo hori ez dela "norberak zigorrak ezartzea", filmaren amaiera epikoak erakusten digun bezala.



Hain film bereziak material didaktikoak honako helburu hauekin bideratzea ahalbidetu du:

- 1. SENTIMENDUAK ETA EMOZIOAK ONDO BIDERATZEA:** Besteekiko jarrera oldarkor eta hotzaren atzean pertsonaren jokabidea azaltzen duten beste arrazoi batzuk egon daitezkeela eta fatxada horren atzean beste sentimendu desberdin batzuk ezkutatuta egongo direla dioen ideian sakontzea.
 - Puntu honetan funtsezkoa da adimen emozionalari buruz hitz egitea, hurrengo animazioko film laburra ikustera gonbidatzen zaituztegu "Gizon axolagabe baten istorioa":
<https://www.youtube.com/watch?v=OdHg3xYjPU>
- 2. BELAUNALDIARTEKO HARREMANAK:** Helduen eta nerabeen arteko harremanak gazteen garapen integralean izan ditzakeen ekarpenak aztertzea. Gure adinekoei entzutea, gure aitona-amonek urteetan zehar metatu duten esperientziaren jakinduriatik ikastea funtsezkoa da hazkunde optimo baterako.
 - Ondoren, Ramón Bayés psikologo eta idazlea "*Un mensaje de sabiduría*"-n entzutera animatzen zaituztegu, bizitzan ikasten hasten den norbaiti emandako aholkuei buruz:
<https://www.youtube.com/watch?v=xa9xl5j6lNk>
- 3. ADISKIDETASUNA (ELKARREKIKO EZAGUTZA ETA ERRESPETUA):** Pertsonen arteko adiskidetasun-prozesuari buruz hausnartzea, elkarrekiko ezagutza eta errespetuan sakonduz.
 - Zein da adiskidetasunaren garrantzia? Zer ematen digu? Mario Alonso Puig mediku eta idazlea.
<https://www.youtube.com/shorts/lceNePojh80>
- 4. HAZKUNDE POSITIBO BATERAKO EUSKARRIAK:** Hazteko eta bere bizitza sortzeko laguntza azpimarratzea, nerabe batek familiarengandik jaso dezakeen mezu nagusietako bat bezala.
 - Luze hitz egin genezake gaiari buruz: laguntzarik gabe garatzearen edo familiararen eta gizartearen laguntzarekin garatzearen arteko aldea. Baina bideo hau aski argigarria da: Ba al duzue pigmalion efektuaren entzueraz? <https://www.youtube.com/watch?v=6lBkBLUoKQ>